



RASFF TXOSTENA

ELIKAGAIAK


ALERTAK eta JAKINARAZPENAK

- 🕒 Alertak eta jakinarazpenen kopurua
- 🗂️ Jakinarazpenen kategorizazioa
- 📊 Antzemandako arriskuen jatorria
- 🚨 Antzemandako arriskuak
- 📅 Azken urteen arteko konparazioa

2020ko URTEKO TXOSTENA ➤



ALERTA ETA JAKINARAZPENEN KOPURUA

2020an, Europako Alerta azkarra sistemaren (RASFF) bidez **3440 alerta eta jakinarazpen** jaso dira.



JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA



2020 urtean zehar, elikagaiei buruzko 3440 jakinarazpen izan dira. Horietatik, **1317 (%37) alertak** izan dira, **1166 (%35) informazio-jakinazpenak** eta **957 (%28) mugan egin diren ukapenak**.



ANTZEMANDAKO ARRISKUEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorriari dagokionez, urtean zehar, aipatu behar da **Europak (%49)** eta **Asiak (%32,5)** eragin dituztela jakinarazpen gehienak. Afrika eta Amerika jatorria duten jakinarazpen kopurua jaitsi egin da 2019 urtearekin konparatuz, Asiakoak eta Europakoak, berriz, igo egin dira.



Urteko batezbestekoak hurrengoak izango lirateke:



ANTZEMANDAKO ARRISKUAK

Aurreko urtean bezalaxe, **kutsadura biologikoak** eragin ditu jakinarazpen gehien (%31). **honakinak** dira jakinarazpen gehien sortu dituzten bigarren taldea (%20,5), pasa den urtetik igo direlarik. Kutsadura kimiko eta kutsadura fisikoen kopurua mantendu egin da. Mikotoxinena, aldiz, apur bat jaitsi egin da.


Hauek dira antzemandako arriskuei dagozkien urteko neurriak eta lauhilekoka izan duten bilakaera:




..... **ANTZEMANDAKO ARRISKUAK**

Kutsadura biologikoaren kasuan, **Salmonela** nabarmendu behar dugu kutsadura biologikoen **%65,5a** eragin baitu, igo delarik.


Honako hau izan da kutsadura biologikoen izan duten joera:




Badira Salmonela espezie batzuk giza osasunerako arriskutsuak direnak (*S.typhimurium* y *S.enteritidis*) eta bestelako Salmonelak, azken hauek, **Salmonela exotikoak**, nabarmendu behar dugularik (**%66**), aurreko urtearekin konparatuz asko jeitsi delarik. *S.enteritidis*, aliz, asko igo da. Urteko eboluzioa izan da:



Kutsadura biologijoarekin jarraituz, **Listeria monocytogenes** bigarren postuan azaltzen da, eta urtean zehar portzentaia igoen joan da.




MIKOTOXINEN kasuan, kasu gehienak (**%79**)
Aflatoxinek eragin dituzte.



Pestizida eta botiken hondakinei dagokionez, urteko batez bestekoa kontutan hartuz, **pestizidek %85,5a** suposatute, kasuen kopurua pila bat igotzeko delarik etileno-oxidoagatik, sesamo hazietan.

Urteko eboluzioa hurrengo hau izan da:



AZKEN URTEEN ARTEKO KONPARAZIOA

